

Teknologia konpontzailea



DIANA FRANCO

Bada esaldi bat asko atsegin dudana, baina norena den ez dakidana: “Teknologia ez ditu beti konponduko gizakion arteko arazoak”. Zientzia eta teknologiari esker, pertsona askok bizitza hobea dugu; dutxa bero bat hartzea teknologiak eman digun luxu handienetarikoa iruditzen zait. Zientzia eta teknologiari esker zenbait senidek bizirik jarraitzen dute, urrun dagoen lagunarekin harremana izan dezaket...

Batzuentzat, teknologia da arazoaren konpontzaile bakarra, eta batzuetan bada. Baina teknologiak bizitzako arazo guztiak konponduko dituela pentsatuz, nire ustez, gizarteak onuragarriak ez diren zenbait agertokietara bideratzen gabilta. Eskolan ikusten dugu, teknologia gelan txertatzeko moduetan. Ikastetxe askotan, ipuin bat irakurtzeko biritan eseri beharrean pantaila handia darabilte, ikus-entzunezkoa baliabide hobea balitz bezala. Ikus-entzunezkoak marrazki ederrak ditu, beharbada ahots polit bat... baina ez al gara zerbait galtzen ari? Hurbil eta ezaguna den irakaslearen aurpegiaren espresioa, gorputzaren mugimendua, ikasle lagunen arteko harremana, irudimenaren zako lekua izatea... Parte izatearen aukera.

Automatizazio prozesuekin antzeko zerbait ikusten dut, ez dut uste gizakion bizitzarako onura asko duenik lan errepikakorrek egiteak. Gizakiok bizitzari zentzua ematen diogu egiten ditugun gauzen bidez, eta beraz lan errepikakor bat badugu, zentzua beste zerbaitetan bilatuko dugu. Lan errepikakorrek desagertzen joango direla diote adituek. Horrek, pertsonak gizarte baten parte izateko dituen aukeren arabera, bi ikuspuntu arin dakartza nire burura: lehenengoa, ordaindutako lan gutxiago egingo dugu, denbora gehiago izango dugu gizartean eragiteko. Bigarrena, denok ez dugu lan ordaindua izateko aukera izango, gure bizitza geratuko da bizi dugun gizarte ereduaren esku.

Beraz, teknologia konponbideak aurkitzeko lagungarria izan daiteke, berau sortzen duen gizarte indartsua bada. Eta horretarako, beharbada, ipuinak pantailan ikusi ordez, biribilean eserita ipuinak kontatzera bueltatu beharko ginatke berriro ikasgelan. ●

Udaberria Fujian Aretoan

MIKEL ARAMENDI

Beranduegi izango da AEBetako presidente Joe Bideni kultura-aniztasuneko lehen ikasgaia irakatsi eta ohartarazteko berak hitz-guinez norbaiti “dictator” deitzen dionean, “dúcaí zh?” aditzen duenak beharbada ez diola iraintzat ere hartuko. Hartarako, lehenik, munduan ingelesa ez beste hizkuntza batzuk ere badirela ulertarazi beharko zaio; eta horrek kultura politikoetako semantikan eragin ditzakeen desdoitasunak aditzera eman, jarraian.

Baina ardura potoloak eta aholkulari-multzo joriak dituen agintaria denez, norbaitek behintzat (gaia inork baino hobeto ezagutu behar duen AEBetako Estatu-idazkari Anthony Blinkenek, demagun) iradoki beharko lioke ez zaiola komeni inori aurpegiatzea... bera erakusten ari den ezjakintasun hori. Izan ere, globo ospetsuaren kontuan, badirudi bere administrazioak etxerako darabilen beldur-ipuina itsu-itsu sinetsita dagoela Biden. Baina horrek ez du ipuina egitate bihurtzen. Eta, batez ere, egia ederki ezagutzen duen beste aldea ez du konbentzitzen ez umilaztzen. Agian, haserrarazi, bai.

Horretan baitago gakoa: egungo AEBen eta Txinaren arteko hartu-emanen korapiloa ez da AEBetako iritzi publiko/politikoaren baitako gorabehera hutsa. Ezta nagusiki ere. Beste aldea ere hor dago, bere interes eta ikuskerarekin. Eta komeniko litzaieke

Bideni eta bere administrazioari haren mezuak aditzea. Autokontsumoko propaganda-dieta gutxituz bada ere.

Beste alde horren mezuak, hitz-identifikazioak direnean, oso gardenak dira, usu. Baina batzuetan, egintzazkoak, omisiozkoak, irudizkoak izaten dira, eta interpretazio-lan pittin bat eskatzen dute. Horietakoa izan zen Blinkenekin biltzeko Txinako presidente Xi Jinping-ek aukeratu zuen aretoa.

Beijingeko Herriaren Areto Handi erraldoian, Txinako 34 lurraldeetako bakoitzak areto bana du eta dekorazio gutiz bereizgarria du bakoitzak. Horregatik, aise antzeman zitekeen Xi eta Blinken arteko bilkura Fujian Aretoan egin zela, “Udaberria Wuyin” murala Xiren atzealdean zela.

Interneteko edozein baliabidek berehala argitzen digu Taiwanen aurrez aurre dagoela Fujian. Are gehiago, garai batean, Fujian probintziaren barnean zegoela Taiwan irla. Eta bi izen horien artean katramilatzen dela itsasarte haren historia. Hain katramilatua, ezen Taiwangoak omen lirakeen Kinmen, Matsu eta beste zenbait irla, Fujiango kosta-ertzari ia erantsita baitaude, orain eta beti.

Horraingo etorrita, Bidenek ez bada bere morroietakoren batek irakurri ote ditu arestian zendutako Daniel Ellsberg, hil hurren, argitara eman dituen 1958ko hango krisiari buruzko argibide ikaragarriak? Beste aldeak, seguru baietz. ●

